

JOSE LUIS ALVAREZ, «Txillardegi». *Elsa Scheelen* (1968 gn. urteko Domingo Agirre Sariaz Euskaltzaindiak hornitutako nobela). Kriselu - 6. Bilbao, 1969.

Errealismu sozial bati aburuzko nobela dugu. Munduan, nobela krisisean dagoen denboran datorkigunez, ezin gera ibili gehiegirik eskatzen. Baina, hori bai, «Txillardegi»-k bere egitekoa aski ongi bete duela esan behar dugu. Lehendik ere egileak erakutsia zuen nobelagile nortasuna, eta egia esan, gutxiagorik ez genuen espero. *Leturia'ren egunkari ezkutua* eta *Peru Leartza'ko*-rekin batean, «Txillardegui», euskerazko nobelagile talde urriaren artean goren mailakoa dugu. Eta gaur erderazkoen aurrean zorrik gabekoa, noski.

Elsa, ia konturatzeke bere alderdia burgesaren-burges ezagutu ezinik arkitzen zan, sindikalista zahar baten alaba zelarik. Gazteen kritikeri eutsi ezinez, eta aberats batekin ezkondu ondorean, elkar eraman ezinez, bizi-alargun, kalbario batean bizi zan. Gizonegandik aragikeria besterik etzuen ikusten, eta fede gabea zelarik, bere sendimentuz moralaren estetika gordetzen zekien bestelako anitzek baino hobeto.

Inguruan dituen personajeetarik Meunier apaiz-langile fede-galdua du interesanteenetako bat. Eta beren arteko gertakizunak urduri era-

maten du irakurlea nobelaren orrien barna. Baina bada bertan besterik ere. Beljikako gizarte giroa adierazten du, bizitzaren formatatik politika prolemtara arte. Behar bada ideoloji prolemaz gehiegi kargaturik, eta baita hizkuntzaren aberastu beharrez nobelaren haria bera ere, unetan zerbait nekegarri egiten delarik. Bertako zenbait gai euskeraz inoiz landu gabeak izanagatik, herrikoiago egin zezakean bere prosa. Bestalde, esan beharra dago, bide jatorra markatzen duela euskal idazleentzat (irakurlearentzat oraingoz nekez xamarra bada ere) bai euskeraren batasunaren alderako eta bai zenbait eratako soluzioz, euskerak zenbaiterako argitzen dituen korapilloetan.

Nobela bezala jakingarria da eta euskeraz geroago ta barneratua go datozen idazleentzat non sakonduzko toki berezia. Ez zuen alperrik eraman 1968-ko Txomin Agirre nobela saria.

J. S. M.

